



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2017-01-30

BILERA ZENBAKIA: 36

ORDUA ETA LEKUA: 19:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Bost neska eta mutil bat

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Azkeneko aktaren onarpena.
2. Gizarte langile berriaren aurkezpena.
3. 2017rako lanen antolaketa eta ardura banaketa.
4. 2017rako erronka nagusia

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA

Ez dago ekarpenik eta onartuta geratzen da.

2. GIZARTE LANGILE BERRIAREN AURKEZPENA

Itsasoren murriztapena beteko duen langile berria aurkeztu da.

3. 2017 URTERAKO LAN ANTOLAKETA ETA ARDURA BANAKETA

1.- ERREFUXIATUAK ONGI ETORRI EKIMENA. OTSAILAK 4

Errefuxiatuak ongi etorri ekimena bultzatu. Herriko 9 puntu desberdinetan muralak egingo dira Javi Julioren argazkiekin. Deialdia egina dago herriko talde eragile guztiei eta 4 pertsona momentuz.

OTSAILEKO BATZORDEAN EGINGO DA BALORAZIOA

2.- DOKUMENTALAK-FILMAK

Marijo, Leire eta Maider arduratuko dira urteko « plangintza » egiteaz. Hilan azkenengo ostegunetan burutuko da eta hilabeteko gaiarekin lotura duen filma-dokumentala ematen saiatzea proposatzen da. Otsaila eta martxokoa lotuta. Ekaina eta uztaileko saioetan botako den filma gaztek aukeratzea erabakitzen da, aurreko urtean eskertu egin zuten.

OTSAILEKO BATZORDEAN LANDUKO DA GAIA

3.- BERDINTASUNA

Aurreko urtean burututako berdintasun tailerrarekin jarraitzeko asmoa aurten ere. Emagin taldekoekin jarraitzeko aukera dago eta eskolan haurrekin 2 saio gutxienez egiteko aukera adostu da. Herrian ere saio edo tailer ezberdinekin jendearen sentsibilizazioa landuko da. Aurten 4.000€-ko aurrekontua dago gaia lantzeko.



URTEAN ZEHAR LANDUKO DA GAIA

4.- HARRERA PLANA

Aurten ere bi deialdi egingo dira. Lehenengoa lotuta dago, ekainak 6an izango da arratsaldeko seietan. 2016tik pendiente geratu ziren hobekuntzeko puntuak landu eta harrerarako liburuxka frantsesera itzultzea pendiente geratzen da.

MAIATZEKO BATZORDEAN LANDUKO DA GAIA

5.- DESFIBRILDORRE IKASTAROA

Urtean behin behintzat egitea proposatzen da ahal bada. Aurten, ekaina aurretik izatea espero da, proposatutako data martxoak 21 eta 22 arratsaldeko 18etatik 20etara. Honekin lotuta, "Lehen Sorospen"eko ikastaroa egiteko proposamena ere sortzen da, zeinekin antolatzeke aukera dagoen galdetuko da.

OTSAILEKO BATZORDEAN LANDUKO DA GAIA

6.-TTIPI TTAPA

Aurrera dijoa, apirilarte lotuta.

7.- MEMORIA TAILERRA

Aurreko urtean AFAGI fundazioren eskutik 2 tailer egin ziren. Aurten, ekimenarekin jarraituko da, bikoteak egiten saiatuko gara herriko bolondresekin eta jubilatuei emango zaie hileko azken asteartetan.

OTSAILEKO BATZORDEAN LANDUKO DA GAIA

8.- AGENDA 21-EPE LABURRA

8.1. Medikuarekin bildu

Medikuarekin biltzea beharrezkoa ikusten da gehien bat arlo soziala lantzeko eta honen inguruan dauden edo sortu daitezkeen beharrak aztertzeko. Lortutako informazioa kontutan hartuta, ekintza desberdinak antolatu. Adibidez, osasunarekin lotura dituzten hitzaldiak (ondo lo egiteko tailerra, drogomenpekotasuna eta gazteria, sexu harremanak, bizi testamentua, Organo eta odol emaleak, Sendiak programaren barruan dagoen zaintzaileei bideratutako tailerrak, e.a)

MARTXOKO BATZORDEAN LANDUKO DA GAIA

8.2. Urteko Kirol Plangintza

Gimnasioaren sorrera. Deialdia bat antolatzea erabakitzen da herritarrei zuzenduta, etxean eduki ditzazkeen makina-aparatuak prestatzeko prest egongo diren edo jakiteko. Udaleko lehen solairuko gela txukuntzea da ideia eta aktibitate desberdinak burutzeko aukera egon daitekela aztertu da.

EKAINEKO BATZORDEAN LANDUKO DA GAIA



9.- AGENDA 21-EPE ERTAINA

9.1. Langabetuak

Gai berria da eta landu beharrekoa, hurrengo bileratan sakonduko da. Hilero bilduko dira Lanbidek bidalitako datuak eta aurrerago aztertuko dira.

APIRILEKO BATZORDEAN INFORMAZIO BILDUKO DA

9.2. Gazteria

Gazteentzako zuzendutako proposamen desberdinak aztertu dira, urtean zehar burutzen joateko ideiarekin. Alde batetik, kirol plangintzarekin batea, gimnasio bat sortzeak gazteentzako interesgarri bezela baloratu da, herrian bertan ekizta desberdinak egiteko aukera areagotzen den eanean.

Ondoren, hitzaldiak antolatzeko garaian, gazteei zuzendutako gaiak lantzea aproposa dela erabaki da (sexu-harremanak, drogak, e.a).

Azkenik, gazteei zuzendutako etxebizitza sozialen kopurua haunditzeko aukera egon daiteken ala ez. Momentuz herrian, horrelako 2 etxebizitza daude eta okupatuta. 2 etxebizitza hoienguz inguruko informazioa biltzeko geratu gara.

9.3. KZ Gunea eta Inpresora

Alde batetik, KZ Gunean ikastarok egiteko aukera (Office, CV, Interneta, e.a.) eta proposamen berriak aztertzeke aukera dugu; dirudienez ikastaro berriak eskatzeko aukera dago.

Bestetik, KZ Guneke inpresora erabiltzeko aukera dagoen ala ez pendiente eta nola antolatu pendiente dago. Dauden aukerak aztertuko dira: txanpona duen inpresora jarri adibidez, KZ gunekoekin hitz egin e.a.

4. 2017-RAKO ERRONKA NAGUSIA

Urteko erronka nagusia, batzordetik kanpo, ekintzen antolaketetan lagunduko digun bolondresak lortu eta beraien konpromezua lortzea izango da.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Dokumental – Filmak aukeratu	OTSAILAK 27	Marijo, Leire eta Maider
Desfibriladore ikastaroak itxi	OTSAILAK 27	Rut
Memoria tailerrak emango dituzten herriko bolondresak bilatu	OTSAILAK 27	Erkuden
Martxoak 8	OTSAILAK 27	Marijo, Leire eta Maider
Medikuarekin bildu eta beharraren arabera urteko hitzaldiak antolatu. <ul style="list-style-type: none"> - Ondo lo egiteko tailerra - Drogomenpekotasuna eta gazteria - Sexu harremanak - Bizi testamentua 	MARTXOAK 27	Rut



- Organo eta odol emaileak - Sendiak programaren barruan dagoen zaintzaileei bideratutako tailerrak - ...		
Langabetuen lanketarako informazioa eskuratu	APIRILAK 10	Alejandra
KZ Guneko ikastaroak	APIRILAK 10	Erkuden
Ekainak 6ko Harrera Eguna antolatu	MAIATZAK 29	Denon artean
Harrera planeko luburuxka frantsesera itzuli	Lehen bait lehen	Rut
Ekainak 20 Errefuxiatuen egunaren bueltan ekimenak antolatu: - Paela solidarioa - Material bilketa	MAIATZAK 29	Jabi eta Haizea
Gimnasioaren antolaketarako plangintza	EKAINAK 26	Jabi eta Haizea
Bokata jana antolatzen hasi	UZTAILAK 24	Denon artean
Aurrekontuak lantzen hasi	IRAILAK 25	
Berdintasun gaiaren inguruko lanketa egin	URTEAN ZEHAR	Marijo eta Maider
Herriko etxebizitza sozialen inguruko informazioa bildu	Lehen bait lehen	Erkuden
KZ Guneko inpresora	Lehen bait lehen	Erkuden
ERRONKA NAGUSIA BURUTU: batzordetik kanpo, ekintzen antolaketetan lagunduko digun bolondresak lortu eta beraien konpromezua lortzea izango da.	URTEAN ZEHAR	Denon artean
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera, 2017ko Otsailaren 27-an egingo dugu, astelehena arratsaldeko 7tan Udaletxean.		
Gai Ordena:		
1. Otsailak 4ko ekimenaren balorazioa (errefuxiatuak)		
2. Otsailak 14ko hitzaldiaren balorazioa (Kiropraktikoa)		
3. Filmen urteko egitaraua lotu. Otsailak 21eko dokumentala lotu		
4. Martxoko desfibriladore tailerra lotu		
5. Urteko memoria tailerrak antolatu, bolondresekin.		
6. Martxoak 8ko elkarretaratzea, pankarta... lotu. Antzerkia bai ala ez pendiente.		